

Burututako lanak



© Xabier Rubio



© Ien Garrin

2004a geroztik Aranzadi Zientzi Elkartek Txingudiko populazio-gune sakabanatuetan egindako ikerketek, apo lasterkariaren egoera larria egiaztatu dute. Hala ere, lortutako emaitzek oraindik populazioa berreskuratu daitekeela adierazten dute. Horretarako, habitataren errekupeazioa ezinbesteko ekintza da. Helburu hau burutzeko, zazpi putzu berri eraiki dira: hiru Arbesen, bi Plaiaundiko Parkean eta beste bat Jaizubiako padura berreskuratuetan.

Lagun iezaguzu Txingudiko apo lasterkaria babesten. Errespeta ezazue bere ingurua.

OHARTARAZPEN SEINALEAK:

Ez sartu arrainik, karramarrorik ez eta dortokarik ere.



Alerik ez hartu, ez eragotzi eta putzuetan produkturik ez bota.



© Manuel Océn

Apo lasterkaria Txingudin



ARANZADI

zientzi elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

HERPETOLOGIA behatokia

observatorio . observatory . observatoire



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETALURRALDIE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO
AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

INFORMAZIO GEHIAGO: www.aranzadi-herpetologia.org

galemys




ARANZADI

zientzi elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



Non aurki daiteke

Euskal Autonomia Erkidegoko apo lasterkariaren (*Bufo calamita*) populaziorik egonkorrenak isurialde mediterranean daude. Bertako zenbait eremu oso urbanizatuetatik desagertu diren arren, orokorrean populazioak ez daude arriskuan. Isurialde atlantiarrean aldiz, soilik kontserbazio arazo larriak dituzten kostaldeko bi populazio ezagutzen dira. Bietako bat Azkorriko hondartzan kokatzen da (Getxo, Bizkaia) eta bestea Txingudiko badian (Irun eta Hondarribia, Gipuzkoa). Azken hau gainera Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan Kaltebera gisa sailkatua dago.



Penintsulako iparekialdean, apo lasterkariak azaltzen duen banaketa eremua.

Ur gutxi behar du



© Ion Garin

Plaiaundiko Parke Ekologikoko Lizarregiko larre putzutua.



© Ion Garin

Osinbiribileko baratzetako drainatze kanala.

Txingudiko apo lasterkariaren habitata eremu irekiek osatzen dute. Populazioaren nukleo desberdinak, paduretako lurzoru bigun eta areatsuetan, baratzen inguruko lursail andeatuetan eta hiriguneetako zenbait lur-eremu degradatuetan kokatzen dira. Ugalketarako, ur emari gutxiko putzuak, drainatze kanaleak, larre putzutuak, arekak eta ibilgailuek errepideetan utzitako gurpil arrastoetako ur pilaketak erabiltzen dituzte.

Apoaren aktibitatea neguaren amaiera aldera hasi (otsaila-martxo) eta udazken amaieraraino luzatzen da (urria-azaroa). Arrak, neguko loaldi luzetik



© Ion Garin

Apo lasterkari arra eta emea amplexoan.



© Ion Garin

Apo lasterkari arra kantuan.

Hirigunean baldintza desagokiak



© Ion Garin

Apo lasterkariaren habitata Arbeseko auzoan (Irun)



© Ion Garin

Apo lasterkariaren habitata Kostorbe Aldeko baratzetan (Irun)

hitartzean putzuetara joaten dira eta kantu ozenen bidez emeak erakartzen dituzte. Putzuetan elkartzen diren apoen koroak kilometro batera ere entzun daitezke. Arrak, anplexo izenez ere ezaguna den besarkada axilarra erabiltzen du emea estimulatzeko. Errutea hezegunearen ur-azalean ezartzen den bitartean, arrak arrautzak ernaltzen ditu. Erruteak, gelatinakara eta arrautza ilara luzez osaturik daude. Batazbeste, 2000 bat arrautz dituzte. Aste bat uretan igaro ostean, zapaburu beltz txikiak eratzen dira. Zapaburuak, hilabete bat edo bi hilabete ondoren metamorfosia burutu eta apo txikitxoetan bihurtzen dira.

Bidasoako eskualdean, hiriguneko lurren hedapenaren ondorioz, baratza, parke, obra eta soilgune degradatuak, hots, apo lasterkariaren eremu potentzialak murriztu eta zatikatu dira. Epe laburrera aurreikusitako urbanizazio lanek, aipatutako zonaldeen desagertzea ekar dezakete. Horrez gain, eraikitzeaz dauden errepide sare berriek populazio desberdinen arteko isolamendua areagotu dezakete.



Arrisku nagusia

- Habitataren suntsipena.
- Ibilgailuek eragindako harrapaketak.
- Harrapakarien sartzapena (dortoka, arrain eta karramarroak)



© Ion Garin



© Marc Franch